



Arartekoaren 2015R-1683-14 Ebazpena, 2015eko maiatzaren 21ekoa. Horren bidez, Santurtziko Udalari gomendatzen zaio Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren (OHZ) ordainagiri indibidualak igorri diezaion subjektu pasibo bakoitzari, ondasun higiezin baten jabekide direnez, bakoitzari dagokion parte proportzionalaren arabera.

Aurrekariak:

1. Interesdunak Santurtziko Udalaren jarduerarekiko desadostasuna adierazi du, berriazko eskaera egin arren, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren banakako ordainagiria –jabekide den etxearen titulartasuneko ehunekoaren arabera– ematen ez diolako.

Higiezin horren jabekidetzat sei pertsonen artean zatituta dago: horietako hiruri ondasunaren % 20 dagokio; beste bi % 13,33ren titularrak dira eta geratzen den jabekideak % 13,34 dauka.

2014 ekitaldiari dagokionez, kexagileak diru-bilketa zerbitzuak esandakoa bete zuen eta bere titulartasunaren arabera kuota bat sartu zuen emandako kontu-zenbakian. Hala ere, azpimarratu zuen bere uziaren xedea bestea zela, hain zuzen, banakako ordainagiri bat jasotzea.

2. Santurtziko Udalari txostena eskatu genion eta gure eskaeran zera aldeztu genuen: ondasun-erkidegoa eratua dagoela egiaztatzen ez bada, Udalak zergapetutako ondasun higiezinaren titular guztiei eman behar dio Ondasun Higiezinaren gaineko zergaren ordainagiria, jabekide bakoitzak zerga horren subjektu pasiboa delako eta, beraz, badu eskubidea kitapen indibiduala (dagokion kuota adierazita) jasotzeko.
3. Santurtziko Udalak bidegabekotzat jo zuen herritarraren eskaera baina onartu zuen interesdunak egokia zeritzon zenbatekoa ordaintzea, hau da, 2014an bezala, ordainagirian agertzen zen zenbatekoaren zati bat ordainduko zuen, zerga-arloan guztiz onargarria baita zergak hirugarrenen izenean ordaintzea.

Ordainarazlea den Udalak bere jarrera Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauaren 34.5 artikuluan oinarritu zuen. Izan ere, artikulua horrek xedatzen du betebeharrak batean zergapeko bat baino gehiago badago, Zerga Administrazioari prestazio guztiak solidario gisa ordaindu beharko dizkiotela, foru arau batek berriaz besterik xedatu ezean.

Ondorioz, Santurtziko Udalak aldeztu du bere erabakia zenbateko osoko ordainagiri bakarra titularkide bakar bati (kasu honetan, pertsona juridiko bati –eraikuntza-enpresari) higiezinaren % 20ko partaidetza-kuota daukanari bidaltzeko.





Gogoetak

1. Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari buruzko ekainaren 30eko 9/1989 Foru Arauaren 2. artikulua zerga horren zerga-egitatea xedatzen du: landa-lurreko eta hiri-lurreko ondasun higiezinaren gozamen- edo lurrazal-eskubide errealeko titulartasuna; ondasun higiezinaren edo haiek lotuta dauden zerbitzu publikoen gaineko administrazio-emakida; edo ondasun higiezinaren jabetza-eskubidea.

Bestalde, 9/1989 Foru Arauaren 6. artikulua xedatzen duenez, zerga horren subjektu pasiboak dira, zergadun gisa, Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 33. artikuluan ageri diren pertsona fisikoak eta juridikoak eta erakundeak¹, Zerga honen zerga-egitatea den eskubide baten titular diren jaraunspenak ere.

Era berean, 9/1989 Foru Arauaren 7.2 artikulua aipatzen duenez, Foru Arau Orokorreko 33. artikuluan aipatutako erakundeetako partaide edo titularkideek solidarioki ordainduko dute zerga honen kuota, bakoitzak bere partaidetzari dagokiona.²

Kasu honetan, ondasun higiezinaren jabetza –interesdunak aurkeztutako Higiezinaren Katastroko Ziurtagiriaren arabera– sei pertsonari dagokie, eta horietako hiruk ondasunaren % 20ko zati bana daukate; beste bik % 13,33ko zati bana; eta azkena % 13,34ren titularra da. Kexagileari ondasunaren % 13,33 dagokio.

2. Datu horiek ikusita, ezin dugu ontzat hartu Santurtziko Udalak emandako arrazoibidea.

Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 34.5 artikulua solidaritate-araua ezartzen du,³ baina zerga-betebeharra betetzeko aurrekontu bakarra egotea hartzen du abiapuntu. Hala ere, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari buruzko araudiak berak heldu dio gai horri eta xedatu du

¹ Artikulu horrek Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 26ko 3/1986 Foru Arau Orokorreko 33. artikulua aipatzen du, honako hau dioena: *‘Sujetu pasibotzat joko dira, honelaxe ezartzen duten Foru. Arauetan, jaraunspen banatugabeak, ondasun-erkidegoak eta, nortasun juridikorik izan gabe, zergagai diren unitate ekonomiko bat edo ondare banatu osatzen dutenean’*. Gaur egun, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauaren 34.3 artikuluan jasota dago.

² *“Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 26ko 3/1986 Foru Arau Orokorreko 33. artikuluan aipatutako erakundeetako partaide edo titularkideek solidarioki ordainduko dute zerga honen kuota, bakoitzak bere partaidetzari dagokiona, Higiezinaren Katastroan hala ageri badira. Katastroan inskribatuta ez badaude, erantzukizuna hainbana eskatuko da, hala ere.”*

³ Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 34.5 artikuluan adierazi da: *“Betebehar batean zergapeko bat baino gehiago badago, Zerga Administrazioari prestazio guztiak solidario gisa ordaindu beharko dizkiote, foru arau batek berariaz besterik xedatu ezean. Foru arau bidez aurreko paragrafoan ezarritakoez gainera beste solidaritate-kasu batzuk ezarri ahal izango dira.”*



ondasun higiezinaren jabe guztiak hartzen direla subjektu pasibotzat eta gainera, –arauak dio "solidarioki"– erantzungo dutela zerga-kuotaren ordainketaz, baina jarraian zehaztu du "nork bere partaidetzaren proportzioan". Hori ez dator bat betebeharrak solidarioa egotearekin.

Bestela esanda, behin baino gehiagotan aipatutako Auzitegi Gorenaren Jurisprudenziarekin bat –adibidez, 1998ko apirilaren 30eko Epaia–, *"la indivisibilidad o, mejor aún, el estado de indivisión del objeto de la obligación no transmuta a ésta en solidaria o, en otros términos, la solidaridad tiene un fundamento totalmente diferente de la indivisibilidad o de la situación de indivisión en que pueda encontrarse el objeto de la prestación..."* Hori dela eta, kontuan hartu behar da –auzitegi horrek aldeztu duenez– zerga-arloan titularkidetasunaren kasuetan, zerga-egitatean arau orokortzat solidaritatea hartzen den arren, zati proportzionalak, hau da, zerga-kuota desberdinak eta zehatzak sortzen dituzten zatiak eskuratzen direnean, ez du printzipio horrek agintzen, kontrako batek baizik, ezin baita solidaritateaz hitz egin zerga-egitatean titularren aldiberekotasuna baldintza desberdinetan oinarritzen denean.

3. Argudioen ildo berean, justiziako auzitegi askok eman dute euren iritzia, hala nola, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiak, 2001eko otsailaren 22ko ebazpenean. Horren bidez zera planteatu da: ondasun-erkidegoa eratu dagoela egiaztatzen ez bada, udalak zergapetutako ondasun higiezinaren titular guztiei jakinarazi behar dio Ondasun Higiezinaren gaineko zergaren likidazioa, horietako bakoitzak eskubidea baitu ordaindu beharreko kuota adierazten duen likidazio indibiduala jasotzeko. Epai horretan, aipatutako Auzitegi Nagusiak, kasua aztertu ondoren, adierazi du kasu horretan ez dagoela Administrazioak Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren subjektu pasibotzat jo dezakeen unitate ekonomikorik, kuota proportzional finko eta indibidualen –zerga-kuota desberdinak eta zehatzak sortzen dituzten zati proportzionalen– titularkide batzuk baizik.

Antzeko irizpide bat erabili du Andaluziako Auzitegi Nagusiak (Malaga) 2000ko irailaren 29ko epaian eta 2003ko azaroaren 28an errepikatu du. Iritzi berekoa izan da Galiziako Auzitegi Nagusia, 2003ko ekainaren 23ko epaian. Epai horien guztien arabera, horrelako jabeakidetzak-kasuetan ez dago betebeharrak solidarioak Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari dagokionez, hortaz, subjektu pasibo bakoitzari bere likidazioa egin behar zaio, dagokion zati proportzionala kontuan harturik. Ildo honetan aipatzekoa da Gaztela-Leongo Auzitegi Nagusiak (Valladolid) duela gutxi emandako epaia, hain zuzen, 2014ko maiatzaren 26koa.

4. Udal Zergen Zuzendariordetza Orokorak ere aldezen du jarduera hori 2011ko abenduaren 13ko V2885-11 kontsulta loteslean. Bertan hauxe adierazi du:

“Por tanto, en el caso de que dos o más personas físicas sean titulares pro indiviso de un bien inmueble, pueden optar por constituir una comunidad de bienes que, como entidad del artículo 35.4 de la LGT, será titular del derecho de propiedad sobre el inmueble y, por tanto, sujeto pasivo, a título de contribuyente, del Impuesto sobre Bienes Inmuebles; o bien, pueden, simplemente, compartir el derecho de propiedad sobre el bien inmueble, sin constituir ningún tipo de entidad. En este último caso, todos los copropietarios del bien serán los sujetos pasivos del IBI, quedando obligados solidariamente frente a la Administración tributaria.

De lo expuesto en el escrito de consulta, parece desprenderse que se trata del segundo de los casos anteriormente expuestos, es decir, diez titulares pro indiviso de un bien inmueble, sin constituir una entidad diferente a los mismos a la que hayan aportado dicho bien.

Todos y cada uno de los cotitulares del derecho de propiedad sobre el bien inmueble, ostentan la condición de sujeto pasivo a título de contribuyente del IBI, en virtud de lo dispuesto en los artículos 61 y 63 del TRLRHL anteriormente transcritos.

Si los copropietarios del bien constan en el Catastro Inmobiliario como titulares catastrales del inmueble, correctamente identificados y con la cuota de propiedad de cada uno de ellos, estos datos deben figurar en el padrón catastral en su condición de titulares catastrales que tienen la consideración de sujetos pasivos del IBI, teniendo derecho a solicitar la división de la liquidación del impuesto.”

5. Aipatu behar da Lurralde Erkidean doktrina hori hainbestearaino barneratu da, non Zergei buruzko Lege Orokorren arabera espresuki onartu baita zergalikidazioen zatikatzea eskatzeko eskubidea.

Hain zuzen, 35.6 artikuluko azken tarte-esaldiak dio: *“Cuando la Administración sólo conozca la identidad de un titular practicará y notificará las liquidaciones tributarias a nombre del mismo, quien vendrá obligado a satisfacerlas si no solicita su división. A tal efecto, para que proceda la división será indispensable que el solicitante facilite los datos personales y el domicilio de los restantes obligados al pago, así como la proporción en que cada uno de ellos participe en el dominio o derecho transmitido.”*



6. Ondorioz, erakunde honek berriz ere esan behar du bidezkoa deritzola banakako likidazioak egiteari, ondasun-erkidego baten ordeztasunaren talde bat dagoenean, eta gainera, administrazioak likidazio horiek egiteko beharrezko datuak dituztenean, horrek ez baitio zailtasun gehigarriarik sortzen administrazio ordainarazleari. Era beran, kontuan hartu behar da administrazioak premiamendu-bidea erabil dezakeela zorren ordaintzea erreklamatzeko, borondatezko epean egiten ez bada.

Administrazioak datu horiek ezagutzen ez baditu, zergapekoek nor bere datuak eman behar dizkiote, hau da, datu pertsonalak, helbidea eta partaidetza-ehunekoa.

Horregatik guztiagatik, eta otsailaren 27ko 3/1985 Legeak -erakunde hau sortu eta arautzekoak- 11.b) artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, hurrengo gomendio hau eman nahi dugu:

Gomendioa

Santurtziko Udalak ondasun higiezinaren jabe bakoitzari Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren banakako ordainagiria eman diezaion, bakoitzak ondasun higiezin horretan daukan zati proportzionalaren arabera.

